

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntzak berretsi du Fernando Remacha Kontserbatorioaren finantzazio-hitzarmena irmoa dela 2020ra arte, Tuterako Udalarekin adostu bezala

Departamentuak ez du uste Udalarekin adostutako baldintzak aldatu direnik

Asteazkena, 2017.eko irailak 27

Tuterako Udalarekin adostutako akordio politikoa irmoa da eta Fernando Remacha Kontserbatorioaren finantzazioa bermatuta dago 2020ra arte. Hala berretsi du Hezkuntza zuzendari nagusi Roberto Perezek, Tuterako udal ordezkari batzuek egindako salaketa larriei erantzunez.

Adostutako hitzarmenak kontserbatorioko gastuaren % 100ko ordaintzea aurreikusten du. Ordainketa moduak, 84/2017 Agindu Foralari jarraituz, ez dio eragiten soldaten ordainketari, ezta Kontserbatorioaren mantenu gastuei ere, finean, horiek kontu teknikoak baitira foru arauak Europako gida-lerroekin bateratu ahal izateko.

Beraz, eta Kontserbatorioari dagokion erakunde bien arteko akordioa urtero berretsi behar bada ere, hori ez da oztopo adostutakoarekin betetzeko eta Fernando Remacha Kontserbatorioaren finantzazioa bermatzeko.



Hezkuntza Departamentuaren egoitza.